

A L J E R I A

■ Zeroualek berriro esan du ez duela FISekin negoziatuko

LIAMINE ZEROUAL lehendakariak garbi utzi du Salbaziorako Fronte Islamikoarekin (FIS) negoziatzeko aukera guztiak agortuta daudela, eta boterearen buruzagitzak zalantzarik ez duela alderdi horrek debekatuta egon behar duela. Ustezko talde armatu batek lau herritar hil zituen joan den asteartean Saida eskualdean. Atzo hasi zen, bestalde, hilaren 23an egingo diren udal hauteskunde aurreko kanpaina. X

I S R A E L

■ Juduek 5.758. urteari ongi etorria eman zioten atzo

UNIBERTSOA sortu zela 5.758 urte dira judutarren iritziz. Juduek atzo eman zioten ongi etorria Rosh Ashanari, urte berriari. Zientziak dio gure Lurra ehundaka milioi urte dituela, eta horren aurka ez egiteagatik lurraren sorrerari buruzko egunetaz Bibliak biltzen duena moldatu dute juduek. Hau da, juduek diote iraganean egunak ez zirela 24 ordukoak, urte mordokoak baizik. X

ERRESUMA BATUA

■ Laboristen popularitateak goia jo du

TONY BLAYR lehen ministro laboristaren Gobernuak herritarren % 59 alde du, hau da, Alderdi Kontserbadorea baino 34 puntu gorago dago herritarren atxekimenduari dagokionez. Hala argitaratu zuen atzoko alean The Times egunkariak. Egunkariarentzat galdeketa etxe batek egindako inkestaren arabera, laboristek bost puntu gehiagoko atxekimendua lortu dute joan den irailean egindako beste galdeketa batekin alderatuta. X

I N D I A

■ Sikh-en atentatuan bi lagun hil dira

NUEVA DELHIN bonba ugari lehertu ziren herenegun eta bi pertsona hil ziren eta gutxienez 50 zauritu. Hiru bonbak trenbidean eztanda egin zuten. Bombaytik Amritsarera (Punjab) zihoan trena iga-rotzerakoan lehertu ziren bonbak eta bi bidaiari hil ziren. Hiru ordu geroago beste hiru bonbak eztanda egin zuten hiriburuko prozesio erlijioso batean, eta 27 lagun zauritu zituen. Xaheed Khalsa Indarra izeneko sikh erakundeak bere gain hartu zituen atentatuak. X

Serbiako Errepublikako hauteskunde azken txanpa istilutsua gertatu da

Lilic sozialista eta Seselj ultraeskuindarra lehiatuko dira igandean lehendakari izateko


Agentziak / Belgrad

IGANDEAN egingo dira Serbiako Errepublikako lehendakartzarako bigarren itzuliko bozketak. Zoran Lilic sozialista -Jugoslaviako (Serbia eta Montenegro) lehendakari Slobodan Milosevicen jarraitzailea- eta Vojislav Seselj Alderdi Erradikaleko hautagai ultraeskuindarra lehiatuko dira lehendakari izateko. Bigarren itzuli horretan hautesle guztien % 50ak gehi batek eman beharko dute botoa bozketa baliozkoa izan dadin. Abstentzioa hori baino handiagoa bada, igandeko hauteskundeek ez dute balioko.

Hain zuzen ere horixe da Belgradeko alkate kargutik kendu berri duten Zoran Djindjic eta haren alderdiak -Alderdi Demokratikoak- hartu duten estrategia abstentzioa bultzatzea. Alderdi Demokratikoaren iduriko, Serbian aurrera daramaten hauteskunde prozesuan ez da behar besteko bermerik bozketak libreak eta demokratikoak izan daitezken. Horrexegatik, hauteskundeetan parte ez hartzeko deia egin diete Alderdi Demokratikoko buruzagiek herritarrei. Hori dela eta, Belgradeko Udaleko Alderdi Erradikaleko zinegotziek eta Alderdi Sozialistakoek Djindjic kargutik kendu zuten asteartean egindako batzarrean.

Ondorioz, nahiko iskanbiltasua gertatzen ari da Serbiako hauteskunde prozesua. Herenegun manifestazioa deitu zituen Djindjicek bere jarraitzaileak, eta 5.000 lagun inguru elkartu ziren Belgradeko kaleetan alkate ohiaren alde. Polizia, ordea, gogor oldartu zitzaizen eta indarrez sakabanatu zituen manifestariak. Atzo gaueko 22:00ak geroztik gogoeta egu-

Serbiako lehendakaritzarako hauteskundeetako bigarren itzulia igandean egingo da. Aurreko itzulian beste hautagaiak kanpora geratu ondoren, Zoran Lilic sozialista eta Vojislav Seselj ultraeskuindarra lehiatuko dira kargua lortzeko. Alderdi Demokratikoaren eta Kosovoko albaniarren protesten ondorioz, istilutsuak getatu dira hauteskunde kanpainaren azken egunak.



Polizia bat albaniar jatorriko ikasle bat atxilotzen Serbiako Kosovo eskualdean.

EPA

netan dauden arren, bihar iluntzerako beste kontzentrazio bat deitu du Djindjicek abstentzioaren alde.

Baina istiluak ez dira Alderdi Demokratikoak deitutako manifestazioetan soilik gertatu. Aitzitik, Kosovo eskualdean ere iskanbilak izan ziren atzo ikasle albaniar eta poliziaren artean. Izan ere, Kosovoko biztanleen % 90 albaniarra da eta autonomia eskatzen dute. 1990ean eskualdearen indepen-

dentzia aldarrikatu zuten eta haien Legebiltzar, Gobernu eta unibertsitate propioak eratu zituzten nahiz eta klandestinoak diren. Asteazkenean, Kosovoko unibertsitate albaniarreko 15.000 ikasleek manifestazioa egin zuten eta poliziak indarrez sakabanatu zituen.

Estatu Batuek eta Europako Batasunak gaitzetsi egin zuten atzo Serbiako agintariek Belgradeko eta Kosovoko manifestazio-

ekiko hartutako jarrera, baina, hala ere, Lilic hautagai sozialistak eta Seselj eskuindarrak altxamendu horiek gogor zigortzeko asmoa dutela adierazi dute hauteskunde kanpainako azken hitzaldietan.

Ostegun gauean aurrez aurreko eztabaidan parte hartu zuten Lilic eta Seseljek, eta bata zein bestea inor baino abertzaleago agertzen saiatu ziren. Horixe izan zen debatearen funtsa. X

Arafat Jordaniara joan da Hamas mugimenduaren sortzaile Ahmed Jassinekin hitz egiteko

■ Khaled Abdel Xafik, palestinarren Legebiltzarreko kideak, utzi egin ditu erakundetan zituen karguak

Agentziak / Jerusalem

JASSER ARAFAT, Palestinar Aginte Nazionalako (PAN) lehendakaria, Jordaniara joan zen atzo, Hamas mugimenduaren sortzaile eta ideologo Ahmed Jassinekin elkarrizketatzeko. Jassin herenegun aske irten zen kartzelatik, Israelgo lehendakari Benjamin Netanyahu aginduta. Arafatek behin baino gehiagotan eskatu zuen Jassin libratzeko arrazoi humanitarioengatik, eta Gazako eremu autonomora eramateko. Hamasen sortzailea han bizi zen atxilotua izan aurretik.

Palestinarrak, ordea, haserre azaldu ziren Israeliek Jassin nola askatu zuen ikusita. Libratu

bezain pronto, heregun goizaldean, Ammango ospitalera eraman zuten helikopteroz eta ezer ez zitzaion esan Arafati. Jassinekin atzo Ammanen esan zuen Israelgo Armadarekin negoziatu zuela askatzea, eta ofizialek «idatziz» adierazi ziotela Gazan duen etxera itzultzen utziko ziotela.

Badirudi Israeliek Jassin askatu zuela Jordaniako Hussein II.a erregearekin itun bat hitzartu ondoren. Jordaniak Mosad-eko bi agente atxilotu zituen joan den astean, Hamaseko Khaleed el-Maxal buruzagi politikoa hiltzen saiatu eta gero. Antza denez, Israeliek Jassin askatu du eta trukean Jordaniak libre utziko ditu Mosad-eko bi agenteak.

Jassinekin aitortu zuenez, Israelgo ofizialak bera konbentzitzen saiatu ziren Hamaseko buruzagi mugimenduko kideei agindu ziezaien atentatuak amaitzeko. «Esan nien Israelen agintzen dutenak ez zaizkigula ardura, gure herriak bizitza duin eta askea berriro eskuratzea baizik». Jomuga israelarren aurka atentatu suizidak egitearen aldekoa dela azpimarratu zuen.

Khaled Abdel Xafik, Palestinarren Kontseilu Autonomoko kide eta Palestinaren Askapenerako Erakundearen sortzaileetakoak, dimititu egin du, PANen politikarekin ados ez dagoelako. Israelgo irrati estatalak atzo adierazi zuenez, Xafik PANi leporatu dio era-

bakiak hartzerakoan palestinarren Legebiltzarra ez errespetatzea.

Joan den uztailan Legebiltzarra Arafati eskatu zion Gobernu desegiteko. PANen diruak kudeatzean Gobernuak ustelkeriaz jokatu zuela eta ez zela eraginkorra ikusi zuen Legebiltzarra txosten batzuk aztertzean. 340 milioi dolarrekoak ziren irregularitasunak, PANen aurrekontuaren % 40koak.

Xafik zuzendu zuen ordezkartza Palestinarrak 1991. urtean Madrilin egin zen Ekialde Erdiko Konferentzian, eta Xafi beti uzkur egon da palestinarrek eta Israeliek Oslon hitzartu zituzten bake akordioekin. X